

Sabin Bikandik bere azken lana aurkeztu digu.



«Gaur egun, gehienetan, fiteago jotzen da»

Sabin Bikandi Danbolindaria. Euskal dantza tradizionaleko jauzien ezagutza zabaltzeko 'Urraska' egitasmoan parte hartu du



ELKARRIZKETA

IRAITZ URKULO

Aiko Taldea duela 8-9 urte Euskal Herriko musika eta dantzaren munduko lagun talde batek osatutako kolektiboa da. Berriki, www.aikotaldea.eus webgunean 'Urraska' egitasmoa abiarazi dute, euskal dantza tradizionaleko 'jauzien' inguruko informazio teoriko-praktikoa doan eskainiz. Sabin Bikandi Aiko Taldeko kidearekin hitz egin digu ekimen interesgarri honen gainean.

– Zeintzuk dira Aiko Taldearen helburuak?

– Musika eta dantzaren arteko berezko lotura inportantea da guretzat, eta arlo horretan sakondu eta inguruarekin gure esperientzia partekatzea dugu helburu. Edo dantza irakaskuntza eta irakasbideak gaurkotu, hobetu, sakondu, profesionalizatu... Dantzak irakatsi beharrean dantzan irakatsi.

– Une honetan, zein proiektu dituzue abian?

– Dantzaldi Ibiltaria da ziurrenik Aikoren proiektu inportanteena. Hainbat herritan dantza eskolak ematen ditugu, oinarriko baliabideak irakatsi eta jendea animatzeko asmoz dantza plazetara etor dadin. Bestalde, UPV/EHUrekin sinatu berri dugun hitzarmenari esker, hainbat ikastaro antolatzen hasi gara. Unibertsitatean dantza normaltasunez irakatsi dadin lan egiteko asmoa ere badugu.

– 2010ean, Nevadako Unibertsitatearen eskutik, 'Urraska: dantza jauziak Sagasetaren bidetik' izenburuko CD, DVD eta liburua kaleratu zenituzten. Nola sortu zen kolaborazio hori?

– Nevadako Unibertsitateak nire doktoretza tesia (Alejandro Aldekoa: Master of Pipe and Tabor Dance Music in the Basque Country) argitaratzeko liburua formatu egokitzeko ari ginelarik, 'Urraska' ia kalertzeko prest geneukan. Renoko Daniel Montero eta Cameron Watsonekin gure proiektu berria partekatu eta egoki eta interesgarri iruditu zitzaizkizun ingelesera itzuli eta mundu zabalera hedatzea.

– Zein da halako lan baten balioa eta interesa?

– Jauzien inguruko lan monografiko sakon, zabal eta zientifikoa dela esango nuke, eta eskuzabala, erabilitako eta zabalduko baliabideetan. Lehe-

nengoz, Sagasetaren eskutik heldu zaizkigun jauzi guztiak grabatu genituen. Eta musikari askok eskertu diguten jauzien transkripzio berri bat, partiturak dantzaren abiapuntutik eginda, urratsen egitura kontuan harturik. Eta aspaldiko bideo interesgarri batzuk, eta abar. – Nor da Sagaseta? Zein da haren ekarpena?

– Migel Angel Sagaseta apaiza, historialaria, musikari eta dantzaria da. 1970 urte inguruan Luzaiden parrokoa izan zen eta bertako tradiziozko dantzak ikertu zituen: historia, pertsonaiak, dantzak, urratsak, musika... eta, 1977an, dantza jauzien 'biblia' bilakatuko zen lana argitaratu zuen: 'Danzas de Valcarlos-Luzaidoko dantzak'. 2011n lan berri bat argitaratu zuen, aurrekoa baino askoz ere sakonagoa: 'Luzaidoko dantzak'. Bere lana erreferente bat izan da jauzien mun-

duan, eta ez da izan musikaririk ez dantza talderik Sagasetaren paperak erabili ez dituenik.

– Zer dira jauziak?

– Jauzien tankerako talde dantzak aspalditik ezagutzen dira Europa inguruan ere, branleak adibidez. Gurean Pirinio inguruan egin dira batik bat, Nafarroako iparraldean, Lapurdin eta Zuberoan. Biribilean egiten diren gizatalde edo komunitate dantzak dira jauziak. Biribilean aritzeak talde nortasuna indartzen du, sustrai komunak sendotuz. Gaur egun, jauziak Euskal Herri osora zabaldu dira.

«Jauzien tankerako talde dantzak aspalditik ezagutzen dira Europa inguruan»

– Zertan datza proposatzen duzuen jauzien inguruko interpretazio berria?

– Musikari dagokionez, abidura mantsoagoa, Beñat Irigoyen 'Galtxetaburu' Azkaindarrak jauziaren grabaketa bat abiapuntu hartuta. Lasaia, luzeago jotzen dugu urraska lur gainak dantzan gozatu ahal izateko. Gaur egun gehienetan fiteago jotzen da. Bestalde, egin ditugun musika transkripzio berriekin, dantzara, urratsetara egokitu dugu musika jotzeko modua eta erritmoa.

Eskuragarri

– Berriki Aiko Taldearen webgunean, 'Diskografia' atalean, material guztia denon eskuragarri duzue. Zergatik? Nori zuzenduta dago?

– 'Urraska' agorturik dago aspaldian eta, buelta batzuk eman ondoren, 'Urraska' berriz argitaratu beharrean gure lana zabaltzeko modu egokiena Internet zela erabaki genuen. Gure helburua, hain zuzen, zabalkuntza da eta horregatik doan jarri dugu lana gure webgunean.

– Sakon dezagun webgunean aurki daitezkeen edukietan. Zer dakar liburuak?

– Testuan jauzien inguruko oinarriko informazioa dator, eta batez ere, gure jauziak interpretatzeko moduaren azalpen zehatza: erritmoa, transkripzio irizpideak, abiadurak, perkusioaren erabilera...

– Material praktikoa ere bada. 25 bat jauzi-melodiaren partiturak eta bakoitzaren grabazio-mota eskaintzen dituzue: bata pausoak markatuta, eta bestea, markatu gabe.

– Jauziak urratsak markatu gabe dantzatzea beste kontu bat da (mutil-dantzen modura) eta, horregatik, musika hutsez egin genuen bertsio nagusia. Baina, gaur egun, erabilienak urratsak markatuta dituzten jauzien grabaketak dira, hau da, zein urrats datorren 'txibatu' egiten digutenean. Edozein kasutan, bertsio biak ondo datoz ikasketaren prozesuan.

– Bitxikeria nagusietako bat dantza-bideo zaharrak dira...

– Bai, 'dantzan.eus'ekoekin batera ari gara horretan. Bideo oso interesgarriak ditugu. Claude Iruretagoyenak 1989an Aiziritzen egin zituen grabaketak, Michel Verdierrek Bithiriñan eta Iholdin 1965ean egin zituenak (mutuak)... tartean Bordarrampe dantza maisuak urratsak banan-banan azaltzen ere ikusi daitezkeelarik. Material ederrak, batez ere, lehen-go dantzaeraren aniztasuna eta aberastasuna ikusteko.

– Azkenik, 'Urrastegia' izeneko atala dago. 'Jauzi' en urratsen eskuko gida izendatu duzue. Zer informazioa kontsulta daiteke bertan?

– Poltsiko liburua da, urratsen izen ezberdinak konparatzeko taula dago bertan, urratsen 'sinonimo hiztegia' edo, eta 'jauzi' guztien urratsen segidak, liburuxka eskuetan dugula edozein 'jauzi' edo 'muxiko' dantza ahal izateko.